

BIZKAIKO FORUA DALA-TA

Forua edo Foruak txitean-pitean ao-miinean erabilliz, Foruak gora eta Foruak beera, Foruak kendu euskuezala-ta negar anpulu lodiak arpegitik beera erioguzala, or jardun izan dogu euskaldunok ekin eta ekin aspaldiko urteotan.

Baifla, Forua zer dan ba ete dakigu? Ezetz erantzungo neuke, euneko bostek ez dakiala.

Esan dagidan, ba, zertxobait Bizkaiko Foruaz.

Eta asteko.

Bizkaiko Forma eta bertako jauirerriaren askaf aswiaa

Egun asko ez dala, adiskide batek auxe esan eustan: Eusko Jaurlaritzan garrantzizko lanbidea daukan gizon bategaz Euskalerriko arazoez berbctan ziarduala, gizon orrek itaun au egin eutsala: «Euskalerriak inoiz izan dau askatasunik, ala»? (Gazteleraz izan ei zan itauna« «Es que el Pueblo Vasco ha sido alguna vez independiente?»)

Adiskide orri emondako nire erantzuna: Gizon orrek Bizkaiko Forua irakurri izan baleu, ez leukean orrelango itaunik egingo.

Orixe jazoten da askotan. Ezer ez dogula irakurri eta aztertu, edo gitxi-gitxi; euskal kultura-barrutian arlote utsak gareala, eta gero esatekoak esan.

Erri bat -Bizkaiko jaurerria, kasu onetan- aske eta bere buruaren jabe izateko, zer bear ete da?

Legeak beretzat berak egin eta lurralde beratan diran ondasunak berak erabili eta banandu.

Au da:

Legegintza eta ondasunen erabilkuntza eta banakuntza.

Zeregin bi oneek erri baten ardurapean • badira, erri ori ez ete da besteakandik aske eta bere eskuko? Ez ete da «independiente»?

Legeak beretzat egikera eta bere ondasunak erabilkeran, beste erriri lotu barik bizi dan erria, bere buruaren jabe dala esan geinke.

Eta alderantziz: legeak beretzat berak egiteko eskubidea erri bati ken badakio, erri ori ezin ezelan be aske eta lokabe izan. Besteren morrontzapean eta buztarripean bizi da, bestek ezarritako legez bere erribizitea eratu eta etorbideratu bear dauan ezkeru.

Erri batek, ondorenez, legeak beretzat ber-berak egitea eta dituan ondasunak berak erabiltzea eta banatzea, beste ezer baino leenago lortu bear dauan egitekoa da.

Gauza biok izan zituan Bizkaiko Jaurerriak, Foruak indarrean izan ziranean.

Au argitzeko eta egiztatzeko, Bizkaiko Forua irakurri besterik ez dago.



KULTURA

I Ataleko I Legeak onan dino:

«Bizkaiko Jaun bakoak, naiz aurretiko Jauna illik dala-ta, naiz beste edozein bideren batez, Jaurerriaren jarraipena esku-ratzean, adinez amalau urtekoa baldin bada, Bizkaira ber-bera etorriaz, zin eginez, agintzak barriztatu egin bear dituala... Eta bizkaitarrak ori eskatuz gero, aitaturiko onartzea eta zifia egiteko urte-barruan etor ez badadi, bizkaitarrak, naiz Lurralde Lauan, naiz Enkartaldean eta Durangaldean bizi, ez dagoela erantzun, ezta urte-sarripeko diran errietako eta baserrietako artuenik eta urte-saririk Jaunari eroateko joan be... Eta Jaun onek agindurik eta betebearrik bitartean bialdu badagi, men egin bekio, baina ez bedi bete».

Bizkaiko Jaunak, zin eginez, onartu bear zituan gauzen ar-tean, Gernikako Zugatzaren pean baturik, Batzarre Nagusietan Jaurerriak egiten zituan Legeak ziran.

Atal bereko XI Legeak auxe dino:

«Bizkaiko Jaunak bertako Legeen eta Foruen aurka emon-dako edo emon eragifiiko Errege-Eskutitzik edo Erabagirik, edozer dala-ta be, edo-ta Legeon eta Foruon aurkakoa izan ba-daiteke, zuzenka naiz okerka, ez daitela bete, baina men egin bckio».

Au da:

«Resistencia pasiva» dalakoaren jarrera eskatzen eben or-duango bizkaitarrak. Agintariak Bizkaiko Legeak onartu egin bear zituan, aide batetik, eta Legeon aurka ezer ezin agindu, bestetik.

Foru-liburu barriak 268 lege dakarz. Eta -Legeon asiera geienetan urrengo berbok irakurten doguz

«Foruz ebela eta Legetzat ezarten ebela»._

Nortzuk legetzat ezarri? Jaun Aundiak? Ez. Gaztelako Erre-gek? Ezta. Batzarre Nagusian alkartuta egozanak, au da, erri-ordezkarriak eta Batzarreko beste legegilleak.

Gernikako Zugatzaren pean egiten ziran Batzarre Nagu-siak, beraz, Bizkaiaentzat egiazko legegille izan ziran. Bizkaiko

jaunak, au da, Gaztelako Erregek -bizkaitarrak onantxe nai izanda, Jaurerriko Jaun askotan berau izan arren - ez eukan ezertako aginterik, Bizkaiko erriak orretarako eskubidea eta aalmena emon barik.

Gutziz argigarri da gai oni buruz I Ataleko **VIII** Legeak

«Baita esan eben, Foruz, usarioz eta oituraz ebela, mendi, usa eta erri-baso guztiak Bizkaiko Aitonon Semeenak diranez, Jaunak ezin daikela Uririk egin, ezta egiteko agindu be... Gernikako Batzarrak eta bizkaitar guztiak onartuz izan ezik»...

Nork egiten zituan -barrero esanda- Bizkairako ziran Legeak? Gernikako Batzarrak, au da, Bizkaiko erriak.

Nonori entzun izan dausat, Korrejidoreak, Jaurerriko Jaunaren ordezkari zanez, Legeak onartu arte, ez ebela Legeok indarrrik izaten. Baleiteke onan izatea. Baina baldintza orrek -orrelantxe izatekotan be- ezin eikean erriaren agintea deuseztu, agintariak Legeak onartu egin bear zitualako, **eta** eskubide ori erriak berak emona izan zalako.

Ondasunen erabilkuntzari buruz beste orrenbeste esan daikegu.

Irakurri dagigun I Ataleko IV Legea:

«Baita, esan eben: Legez eta Foruz Bizkaiko Jaunek etxe eta baserri batzuetan urtean onenbesteko errenta eta urte-saria beti izan ebela... Bizkaiko eta Enkartalde eta Durangaldeko oletan, ostera, lantzen dan burdin kintal bakotzeko arnasei dim zaar... Eta beste eskabiderik ez ebela inoiz euki, ez **arielik**, ez bidasaririk... ez dirurik... ez serbitzurik. Bizkaitar guztiak... beti izan dirala euren eskuko, kitu eta zergabagako, eskabiderik, morrontzarik... eta izan leiteken beste edozein eratako betekizunik euki baga, zein Bizkaian... zein erbestean».

Bazituan, bai, Bizkaiko Jaunak bere eskubideak ondasunei buruz, baina eskubide eta zerga orreek Bizkaiko erriak onartuak izan ziran, berak onantxe nai izanda, nagusigoa eta jabegoa dabenaun biren artean egin izan dan itunaren edo alkar-artzearen

ondorioz ebatzita gero, ez bestek goitik beera aginpidez ezarriak, edo gura-nai-gura-ez artu eraginikoak.

Foraaren sortzezko esangitta zeatza

Forua dala-ta, zertxo au argitzea ondo letorkigukela deritxat Esan be, gaur batzuk Forua eta Lege Zaarra bardin dirala esaten dabe.

Orretarako, Forua beronen jatorrizko izaten berezian eta zeatzean zer dan jakin bear dogu.

Foruaren sortzezko zertasuna zeaztu gura bagendu, auxe esango genduke: Forua erri bateko usuarioak eta oiturak dirala, idatzi aurretik eta lege egin aurretik, erriaren errainetan sortuta gero, urtetan eta urtetan eta, bearbada, mendetan eta mendetan erri orrek gorde eta bete izan zituanak.

Forua idatziz ezarri baifio leenago, erri-bizitzari egokiozan ainbat eta ainbat usuario eta oitura zaar ziran, ez ifioren aginpidez etorriak, errian bertan berez-berez eta bizi-bearraren indarrez sortuak baifio. Oituron eta usarioon bitartez mugatu eta eratu eban erri orrek bere gizarteko izanbidea eta bizibidea.

Forua, beraz, beronen izatezko zer zeatzari begira bagakioz, ez da lege bat, legearen aurretikoa baifio.

Au egiztatzeko, ondo legoke Bizkaiko Foruak ainbeste bidar aitutzen dauan esakera gogora ekartea.

Ikusi adibidez, IV Atala, I Legea:

«Baïta, esan eben: Foruz ebela eta legetzat ezartzen ebela»...

Foruz ebela, au da, aurretiaz ebela, usarioz eta oituraz ebela, eta aurretiaz ebcn Foru ori lege egiten ebela. Orregaitik difio Adrian Celaya jakintsuak: «Antes de que se escribiera una sola letra, el Fuero existia» (Derecho Civil de Bizkaia y Alava, 15 orr.).

Au gogoan izan ezkerro, argi ikusiko dogu Forua gauza bat dala eta Lege Zaarra beste bat.

Bizkaiko erriaren gun-gunean sorrera izan eben antziiati-

ko oiturok eta usariook, baina, geroago, urte asko garrenean, Gernikako Zugatzaren pean egin oi ziran Batzarre Nagusietan izkribuz ezarri eta lege egin zituen, eta, arrezkero, esangura zabal baten, Foruari Lege Zaarra be esan dakioke. Baina, sortzezko esangura mugatua eta zeatza ori ez dala gogoan izan bedi.

Euskalerrriak izan zituan Foruak eta, beraz, Bizkaikoak be bai, Gaztelako Erregek emonak izan zirala, eta, Erregek emonak izan ziran ezkerero, Erregek berak, bere naierara, ken daitezala, irakurri izan dot bein baiilo geiagotan.

Onan idatzi eta ustc dabenak Forua zer dan ez dakie. Bizkaiko Foru-Liburuak argi eta garbi dakar asierako sarrera luzc baten Forua nondik datorkigun eta non eta zelan sortu ziran bilduma orrek dakazan legeak.

Lege-bilduma bi

1526-garrenean egin eben Bizkaian azkenengo lege-bilduma. Eta bilduma oni Foru Barria edo Barriztatua deritxo. Ez barria dalako - orduezkero laureun eta berrogeita amabost urte igaro dira - leenago beste lege-bilduma bat izan zalako baino, 1452-garren urtean idatzia, eta Foru Zaarra deritxana.

Aitaturiko 1452-garreneko bagillaren bigarrenean, Santo Domingoko Pedro Gonzalez Korrejidore zala, Gernikako Andra Mari Elizan, Foru-Alkateak eta beste Aldun batzuk eskari auxe egin eutsoen Korrejidoreari: Bizkaiko usuario eta oiturak idazteke egozan ezkerero, idaztea eta izkribuz ezartea guztiz mese-degarri izango litzatekela, idatzi baga egozalako, erriari kalteak eta kalteak etorkiozala-ta. Korrejidorearen aurean bertantxe izendatu zituen gizon batzuk, Bizkaian zituan usuario eta oiturak izkribuz ezarri egiezan. Foru edo lege-bilduma au urte bereko garagarrillaren 21-an Gernikan aurkeztua izan zan.

Irurogei eta amalau urte igaro ondoren - gizaldiaren lau zatitatik iru bai fio ez - Forua aldatu eta barriztatu bearra etorri zan.

Zer dala-ta ori?

Ikusi dagigun zer dinoskun Foru-Liburuak:

«Bizkai Jaureriko Forua antxifia idatzia, eta ez bakezik, ez zuzentasunik, ez Letrau ugaririk ez zan aldian, eta Jaurrerian orain daukagun auziei buruzko jakiterik (Jainkoa goratua izan daitela) ez zan aldian eratua izan zala, esan eben. Ori dala-ta, gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zan Foruan; beste batzuk, ostera, denporak aldatu egin diranez eta ikusien gaifera dakigunez, alperreko egin dira: beste batzuk, barriz, erriaren nasaibide eta bakebiderako bearrezko diranak eta usarioz eta oituraz bete izan diranak ezarri barik dagoz bertan»... (Bizkaiko Forua, 8 orr.).

Zer jazo ete zan orren epe laburrean - irurogei eta amalau urtetan - Foru Zaarrak ebazan lege batzuk alperreko egiteko eta aldi beratan usario eta oitura barriak agertzeko?

Erdi-Aroaren amaieran gagoz. Kondairaren aldi barri bat daukagu jaioten zalantzarik baga. Aro barri au ager daitenean, aidakuntza sakonak eta gora-beera aundikoak izango dira Bizkaian. Eta aurki etorriko diraiakoaren itxurak dagoz. 1452-garren urtean osotu eben lege-bilduma barriztatu eta aldi barriari egokitu egin bear, beraz, garai aretako bizkaitarren eretxiz.

1526-garreneko apirillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egindako "Batzarre Nagusian, Foru Zaarraren barriztatzelana aurrera eroateko Batzorde bat izendatu eben, ama-bi gizonez osoturiko Batzordea.

«Gizon eskolatu, jakitun eta barru garbikoak eta Bizkaiko Foru, usario, oitura eta erri-eskubideetan aitua ziranak aukeratu bear ziral», esan eben (Foru-liburua, 9 orr.).

Batuta egozan guztien izenean «bear ainbateko aalmen osoa emon eutseen, eta erria ondo zaintzeko barriztatu egiela (Forua), bertako auzibideak garbitzeko eta bizilagunen nasaibide eta bakebiderako bear zan guztia idatzirik; alperrekoa eta bearrezkoa ez zana kendurik, erantsirik edo mozturik, eurak zelan eritxen eta alantxe» (Foru-liburua, 12 orr.).

Bilboko uri ondo-ondoan zan Najako Martin Saez-en

etxean batu ziran langintza orretarako, eta goizetan seiretatik amarretara eta arratsaldean ordubatetatik bostak arte lan-da-lan eginez, amar egunetan burutu eben euren egitekoa. Batzarre Nagusiak ogei egunetako epea izendatu eutsen, baina Batzordekoak amar egunetan amaitu eben lana. Foru Zaarraren barriztazte-lan astun, gogaikarri eta garrantzitsu a amar egunetan egin!

Foru Zaarretik zer kendu eta Barrian zer erantsi zeaztu ebenean, Batzordekoak gizon bi aukeratu zituan Foru-liburu barria idazteko: Jaurerriko Letrau zan Martin Perez Batxillerra eta jaurerri bereko Sindiku zan Ibarguengo Inigo Urtiz,

Batzordeak agindu zorrotz au emon eutsen izendatutako gizon bioi: Gernikara joan zeitezela, eta an, Antxinako Andra Mari eritxan eizan alkaturik, eurak barriztatu zituen lege zaarrez eta barriez liburu bat egin egiela, legeak atalka banandurik eta lege bakotxaren adiera idazkera on eta garbiz azaidurik. Eta langintza au amaitu arte, ez egiela euren gain beste eginkizunik

burututa gero, ogei eta lau ordu barru, barriro Bilbora biurtu ziran eta Batzordearen aurrean euren lana aurkeztu.

Zelan egin ete eben Bilbotik Gernikarainoko eta Gernikatik Bilborainoko joanaldia? Ginez? Zaldiz? Zalpurdiz? Ez dakigu. Baina joan eta itzuli eta Foru Barriaren berreun eta irurogei eta zortzi lege idatzi, guzti ori ogei eta lau ordutan egin ebela dino Foru-liburuak. Sinistuteko be!!!

Foru Barri au 1527-garreneko apirillaren zortzigarrenean onartu eban Valladolid-en Carlos Enperadoreak, Bizkaiko Jauna berau zan-eta, Urrengo urtean - 1528-garrenean - Burgosen irarri zan leenengoz Bizkaiko Foru Barrizatua.

Foru Barri au indarrean egon zan arik eta 1839-garren urtean II Isabelek emon eban legea arte. 1876-garreneko garagarriilaren 21-an Canovas emon eben legearen indarrez, zearo ondatu zan.

1526-garrenean eratu zan eta Foru Barria edo Barriztatua deritxan bilduma onetan ez datoz Bizkaian gordetan eta betetan ziran usuario eta oitura guztiak. Gure egunetara arte iraun dabenean usuario eta oitura asko ez zituen Foru-bilduman ezarri, orduango legegilleen eretxiz, beinenak eta garrantzizkoenak ziranak baifio.

Lurralde Lawareim «(Tieirra Ilana»resi) frata unioata

Bizkaiko Forua antxinako gure asabakandik datorkigun ondarerik arrigarriena eta baliotsuena dala, dinoe batzuk. Euskerara bera baifio beinago ez ete dan irakurri dot nunbaiten.

Nortzuk egin ete eben Foru arrigarri ori?

Bizkaiko Jaurerri guztiak artu ete eban parte Forua eginke-ran?

Itaun oni erantzun aurretik, Lurralde Laua edo «Tierra Lia-na* zer izan zan adierazotea argigarri izango litzatekela uste dot.

Kondairan zear iru erri-erakunde izan dirala dirudi Bizkaian, eta Euskalerriko beste errialdeetan be bai antza.

Leenengo erri-erakundea *auzoa* izan zan. Erri-erakunderik zaarrena, antxinakoena. Menditarte baten edo lautada baten ziran basetxeak eta bertako familiak noizik-bein alkartu egiten ziran euren arteko arazoak garbitzeko eta konpontzeko. Orixe izan zan erriaren leen-alkartea, ondoan edo urrean ziran beste etxeakaz artu-emonetan ipifii ebazana. Batzarrak askotan zuzaitzpe baten egiten zituen, «arbol asambleario» edo batzar-leku eritxan arbolape baten.

Geroago, urteak joan eta urteak etqrrri, kristau-biziera bazterretan zabaldu eta nagusitu zanean, lekuan-lekuan elizak egin ziran. Orduan elizaren inguruan alkartzen asi ziran mguruetakoa auzoak, eta batzarrak elizpean egiten. Elizako atean ipinten eben, antza, batzarrerako deia eta kanpaiak jotzen. Batzarra amaituta gero, atean josten ebezan artutako erabagiak.

Ortik dator, dirudienez, *elizate* - elizako ate - izena. Gazte-leraz «anteiglesia» deritxo.

Orra bigarren erri-erakundea, auzoa baifio zabalagoa eta

aundiagoa, eta Bizkaiari gagokiozalarik beinik-bein, itzelezko garrantzia izan ebana.

Bizkai jaurerriko 'Lurrealde Laua izan zanaren luze-zabaleran, ainbat erritan eta ainbat elizatako elizpetan ikusi dai-teke gaur be Eskribaua egoten zan arrizko maia eta alboan jendearentzat ziran arrizko jesarlekuak.

Elizate edo «anteiglesia» dalako erri-erakunde oni *elixalde* be deitu ei dakioke, Jose Migel Barandiaran jaun jakintsuaren eretxiz. Eta ederto. erabillita ei dago erri-erakunde ori adierazoteko.

Bizkai Jaurerriko Lurrealde Laua- sei merinaldetan egoan bananduta: Busturi, Uribe, Bedia, Zornotza, Arratia eta Markina. Foruak zazpitan egoala bananduta dino: aitaturiko seiok eta Durango. Baifia Durangok ez eban Forugintzan esku-artu, gerrogo esango dogunez.

Elizate edo elixalde erri-erakundea ez zan Bizkai Jaurerrikoa bakarrik izan.

Leintz ibarreko Eskoriatzara joan bazaitez, esate baterako, bide-ertzetan onango zuzenbideak ikusiko zenuke an eta emen: «Bolibar elizatea», «Gellao elizatea», «Apotzaga elizatea», eta abar. Kaleaz gainera, zazpi auzok (elizatek) osotzen dabe Eskoriatzako Udalerria.

Arabako Aramaion beste orrenbeste jazotzen dala uste dot. Oleta auzoak beintzat elizate-«anteiglesia» izena dau elizako liburuetan.

Baifia Bizkai Jaurerriko elizateak eta Leintz ibarreko eta Aramaiokoak ez ziran guztiz bardin izan.

Leintzen eta Aramaion auzoai eritzen elizate-«anteiglesia». Auzo bakotxak, berari egokiozan arazoak konpontzeko bertako elizpean batzarrak egiten zitualako, bearbada.

Jaurerriko elizateak ez ziran erri bateko auzoak, erri osoa baino. Erri guztiari eritxon elizatea. Ori dala-ta, Bizkaian elizate izan ziran erriak gaur Udallerri dira. Leintz ibarrekoak eta Ara-

maiokoak, ostera, ez. Auzo uts diraue gaur be.

Elizateak edo elizpean egiten ziran batzarrak zabalak eta agiriak izaten ziran. Edonor joan zeitekean. Geroago - amaseigarren mendean asita edo' - udaletxeak egin ziranean, etxeotara aldatu zituen elizpean egiten ziran erriko batzarrak, eta arrezkerro antxe egiten cira.

Irugarren erri-erakundea *erribildua* edo «villa» izan zan, elizate batetako lurraldean Erregek edo beste Jaun batek sortua.

Elizatea baino beranduagoko erakundea da. Bilboko Erribildua, esate baterako, Begonako elizatearen lurretan eratu izan zan: Gernika, Lumo elizateak emoniko lurraldean, eta abar.

Bizkaian Foru izena emon dakioke Erregek edo jaun batek sorturiko Erribildu bati be. Eta auxe da Foruak daukan bigarren esangurea.

Gogoan artzekoa da E. Labayruk gai onetaz dinoana: «La villa en Bizkaia es contra el modo de ser de su solar, y las bases de su formacion de procedencia extrana... El caracter de Bizkaia es el de ser tierra liana, lo que no significa otra cosa que carencia de poblacion recogida y murada. Por su naturaleza las villas fueron antiforales. Por tanto, el gobierno tenia que ser distinto» (Historia General de Bizkaia, tomo 1, lib. II, cap. XXII).

Erregek edo Jaun batek Bizkaian erribilduren bat eratzen ebanean, geienetan Logronoko Forua einoten eutsan:

Orain erantzun geinke leen egindako itaunari.

1526-garreneko apirillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egindako Batzarre Nagusian artu eben Foru Zazarra barrizatzeko erabagia.

Batzarre Nagusi aretan Lurralde Lauko edo «Tierra Llana»-ko berrogei eta amazortzi elizatek artu eben esku, Bizkaiko errietako ordezkari lez. Ez erribildu edo «villa» ziranak, ez Bilbok, ez Gernikak berak be, ez Bermiok... ez beste erribildu edo «villa»k, ez Durangaldeak, ez Enkartaldeak. Lurralde Lauko elizateak bakarrik.

Foru-liburuaren asieran dator zeatz-meatz zein elizateko ordezkariak esku-artu eban, elizatearen eta ordezkariaren izen eta guzti. Guztiz berrogei eta amazortzi elizateko erri-ordezkari.

Orrek ez dau esan gura Lurrealde Lauan elizate geiago izango ez zanik, Batzarre Nagusi aretan tarteko ez zala izan baino.

Bizkaiko Lurrealde Lauan edo «Tierra Llana» eritxan Bizkaiko zatian bizi ziran bizkaitarren frutua dogu, beraz, Foru Barriztatua.

Foru zaarra crabarritzea ebatzi zan 1526-garreneko Batzar Nagusi a osotu ebenak aitururiko berrogei eta amazortzi elizateko ordezkariak baino ez ete ziran izan? Jendetza urria, esango leuke norbaitek, arelango Batzarre garrantzitsua egiteko.

Ez. Geiago be izan zan.

Onan dino Foru-liburuak:

«Batzarre Nagusi jakin baterako deia artu ondoren, Zugaitz onen pean guztiz Noble dan Loaisako Pedro Giron Lizentzidun jauna, Jaurerri onetako Korrejidorea, eta Muxika eta Butrongo Don Joan Alonso... eta Bizkaiko beste Zaldun, Eskutari eta Aitonnen Semerik asko, ainbeste eta ainbeste diranez, euren izenik ez da aitutzen»...

Bazan, ba, jendetzarik. Baifia errietako ordezkariak Lurrealde Lauko berrogei eta amazortzi. Besterik ez.

Guztiau gogoan dogula, Bizkaiko Foru Barnztatuari, Bizkaiko Forua deitu barik, zuzenago eta zeatzago leritxokela uste **dot**, Lurrealde Lauko edo «Tierra Llana»ko **Forua** deituko balitzakio.

Bizkaiko Foraa gazteleta utsez

Jakingarritxo auxe irakurri neban leengoan aldizkari baten.

«Bizkai Jaurerriko Batzarre Nagusiak erabaki zuten... euskeraz idatzirik ekarri zezatela aurreko billerako agiriaren laburpena. Erabaki au, nunbait, Abandon bizi zan arabar baten eraginez

edo artua izan zan: Jose Paulo Ulibarriko Garindez-en eraginez»,.. (ARANZAZU, azaroa, 1985, 7 orr.).

Apur bat zurtz eginda be geratu nintzan, orrelakorik ez dot nik egundo entzun-eta. Ez dino idazleak nondik artu dauan jakingarri ori.

Ulibarriko Jose Paulo semez Okendo errikoa izan zan. Euskaltzale gartsua zanez, aalegifiak egin ei zituan Gernikako Batzarre Nagusietan euskeraren aide.

1826-garren urtean eskutitz bat egin ei eutsan Aita Juan Mateo Zabala (1777 - 1840) frantziskotar euskal idazle eta ojer-kari ospetsuari, Bizkaiko Forua euskerara itzultzeko eskatuz.

Aita Juan Mateo Zabalaren erantzuna leorra ta latza izan zan. «iZer?: burua galanto ausi liburuak egin ezinik, urtu orreek argitara atarateko, or, ogetamar edo berrogei milla erreal, ta gero saguak, zedenak ta autsak yateko: edo dendeetan eurokaz •tabakoa edo piperra salduteko... Ez nago ni orretarako... Nigaitik Forua erderaz geldituko da» (ARANZAZU, 7 orr.).

Erantzun gogortxoia Aita Zabalarena, baina egi aundia salatzen dauana. Onen agergarri Gernikako Batzarre Nagusietan jaso zana da.

Batzarre Nagusi areetan euskeraz berba egiten ebena, gauza zurrta dala esan geinke.

Forua erabarritzeko erabagia artu eben 1526-garreneko Batzarre Nagusian Lurralde Lauko berrogei eta amazortzi elizate izan ziran tarteko, esan dogunez. Erri-ordezkarriok, euneko eun, euskaldun utsak izan ziran ziurkiro. Gaur be erri orreek euskaldun irauten dabe, geienak beinik-bein, eta orduan areago.

Euskeraz berba egin, bai, egingo eben. Baina Batzarraren agiria ta urrengo datozen legeak - berreun eta irurogei eta zortzi lege - gaztelera eta gaztelera utsez idatzi zituen.

Zergaitik ori?

Oiturea orixe zalako izan zeitekean. Leen-leen, danok daki-gunez, latin izan zan goi-mailako izkuntza Europako errialde

geienetan.

Latin dcuseztu zanean, latinkumeak - latinetik sortu ziran izkuntzak - artu eben erromatarren berbetek gizartean eukan lekua.

Erri-izkuntza batzuk - gaztelera, esate baterako - indartu, zabaldu eta aberastu egin ziran. Euskera bapez. Gure aurretikoak uts aundi bat egin ebela esango gendukc arlo onetan. Bai bizkaitarrak, bai gipuzkoarrak, baita beste euskal errialdeak be. Ez eben euskera landu, ez euskal barrutia jorratu. Etxeko berbetea egin eben euskera, eskaratzetan eta suetetan, ardangeletan eta jolas-tokietan erabilten ebena. Kultur-alorrerako, barriz, beste izkuntza bat artu eben, euskaldunentzat kanpokoia eta arrotza zan izkuntza.

Lege-bilduma au euskaraz idatzi izan balitz, edo gitxienez, izkuntza bitan - gaztelera eta euskeraz - etorkizun ohea izango leukean bearbada gure euskera gaixo onek.

Euskerazko berba Ibatzwk Bizkalko Foraan

Ainrago: Azkueren eretxiz, «crisol» da, oletan burdinea urtzeko zan zuloa. XXIV Atalean, X Legean dator.

Geldo: Gaztelera azko «escoria» da, oletan burdinea urtuta gero geratzen zan zabarra edo ondakiila. Leku batzuetan «zepa» be esaten jako. XXVII Atalean, I Legean dator.

Uşa: Erriko basoa. Azkuek be badakar bere Iztegian. I Ataleko VIII Legean dator.

Ilberako: Testamento (en la cabecera de la muerte, Adrian Celaya). Berba au Bizkaiko Foruan datorrela dirlo Azkuek bere Iztegian. Baina Foru Barrian nik ez dot aurkitu. Foru Zaarrak dakar, antza.

Pedro Puxana